GIDA DIDAKTIKOA | 1 zk. | 2016ko ekaina

6-8 URTE

GENERO PAREKIDETASUNA

URTEBETETZE KOLORETSUA

kaleidoskópio

JATORRIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Proposamen didaktiko honen jatorria **Munduak elkarlotuz** nazioarteko proiektuan datza. Aspaldiko partez, irakasle askok eskatu izan digute **Munduak elkarlotuz** proiektuaren sareko plataforman agertzen ziren jarduerak eskura izateko aukera, online-ko jardueraren egutegia eta beste hainbat eskolarekiko prozesu kooperatiboa zeinahi zela ere, nork bere ikastetxean autonomia osoz betearazi ahal izateko.

Oraingoan, animazioei, ildo nagusiei eta eduki-mailei eutsi egin diegu eta, gainera, jarduerak testuinguru berrira egokitu ditugu, zeuen lanak ondore onak izan ditzan.

Gida hau irakurtzea gomendatzen dizuegu, horrek jarraibideak emango dizkizuelako, bai hemen proposatzen diren jarduerak garatzeko, baita ideiak ere, hainbat gai eta aspektutan sakontzeko.

www.conectandomundos.org

OXFAM Intermón

Aurkibidea

Animazioa, laburturik.
Helburuak eta gaiak ____ 3

Ebaluazio konpetentzialaren
adierazleak ____ 4

Irakasleen jarrerak:
ezkutuko curriculuma ____ 5

Jarduerak garatzeko
jarraibide metodologikoak ____ 6

Sakontzekoak ____ 15

Glosarioa ____ 20

Bibliografia ____ 22

Animazioa, laburturik. Helburu eta gaiak.

Egun berezia da gaur, Abi-k zazpi urte betetzen dituelako. Etxean ederki ospatuko dute. Amatxok sekulako askaria prestatuko du, bere pastel eta guzti. Jolas eta opariak izango dira, denen gozagarri. Ahaideak etorriko zaizkio Abiri: lehengusuak, izebak, amona... Berak, ordea, beste kezka bat dauka barruan, aspalditik eskatzen ari dena.

Helburuak

- Norberaren izaera garatzea: nolakoak garen, nola ikusten gaituzten.
- Sentimenduak aitortu, adierazi eta gainerako kideekin enpatizatzea.
- Bestetasuna garatzea, hots, bestelakoekiko errespetua, besteenganako errespetua.
- Genero-desberdintasuna bisualizatzeko, gertueneko ingurukoak lotestea: senideekin jardueran aritzea.
- Berdintasunaren gizartea lortzeko bidean jardutea.
- Hezkuntza emozionalaren alde aritzea.
- Generoko estereotipoak bisualizatu, sentitu eta eraistea.

Lan-ildoa: lehentasunezko ikuspegia

- Enpatiaren alde jardutea.
- Kultura eta generoa gorabehera, sentimenduak adierazi ahal izatea.
- Gure emozioetan ez dago alderik (denok egiten dugu negar, adibidez).
- Eginkizun eta estereotipoak Identifikatzea, ingurukoei gertatutakoen bitartez (amatasun-lana, lanbideetan emakumea sartzeko...) eskubideen berdintasuna nabaritzeko.
- Herri kantak eta jolasak aztertzea.

Gaiak

- Zure urtebetetze eguna.
- Sentimendu eta emozioak: ilusioa, alaitasuna, etsipena, enpatia.
- Lan-banaketa familiartean.
- Eskuzabaltasuna eta laguntasuna.
- Familiarteko ipuinak, kantak, jolasak.
- Lanbideak.

Ebaluazio konpetentzialeko adierazleak

Hizkuntza-gaitasuna

- Testua erabat ulertzea.
- Ideia nagusi eta bigarren mailakoak atzematea.
- Egiteak eta iritziak, egiazko eta alegiazko edukiak bereiztea.
- Berariazko hiztegia baliatzea.
- Aditze aktiboa.
- Elkarrizketaren egitura errespetatzea, bertan parte hartzea.
- Adierazpena erritmo, intonazio eta ahoskeraz janztea.
- Hitz-jarioa eta adierazpen oparoa.
- Aurkezpen argia, antolatua.
- Aurkezpena egin ondoren, galderei erantzutea.

Emozio, gizarte eta herritar-gaitasuna

- Hizkuntzak aintzat hartzea, elkarrekin komunikatzeko eta elkar aditzeko bidetzat.
- Era guztietako aurreiritziak atzeman eta arbuiatzea.
- Giza eskubideak defendatzea.
- Kausa, intererlazio eta arriskuen analisia.
- Aditze aktiboa.
- Gainerakoen egite eta iritziak errespetatzea.
- Taldeko lanetan laguntzea.
- Hartutako erabakiak betetzea.
- Taldeko lana mesedegarri jotzea.
- Taldeko kide guztiak ezagutu eta onartzea.
- Arazozko egoeretan malgu eta elkarrizketarako irekita agertzea.
- Ikasgelako arauak finkatzea.
- Arauak ez betetzearen ondorioak aztertzea.

Gaitasun artistiko eta kulturala

- Eduki jakin bat multimedia moduan aurkeztea.
- Arte adierazpenaz gozatzea.
- Erantzunetan orijinaltasun edo asmamena.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Materialak hautatu eta prestatzea.
- Arreta kontrolatu eta lanari eustea.
- Bestelako aukerak bilatzea.

Irakasleen jarrerak: ezkutuko curriculuma

Genero-berdintasunari dagokionez, hezkuntza-komunitateak aurrean duen erronka, —berariaz ez izanik ere— estereotipo eta rol tradizionalak asimilatzean, eskolako emaitzez eraginik izan dezaketen bestelako itxaropenak transmititzen saiatzea, dela iruzkinen bidez, dela bromen bidez, dela tratamendu desberdinen bidez.

Irakasleak, beraz, era inkontzientean (ezkutuko curriculuma) indartzen ari denaz eta ikasleei helarazten ari zaizkien ereduez gogoeta egin beharko du.

Hainbat alderdi atzeman ditzakezue, hara:

- Gai jakin batzuen gaineko iruzkinak, hala nola itxura fisikoa, arropa edo jokabide zintzoa, neskei dagokiela; argitasuna, itxura zarpaila, zikinkeria, jokabide oihesa, mutilen kasuan.
- Broma edo txantxak: hauen gaia estereotipoak diren edo ez.
- Bestelako tratamendua:
  - Irakaslea noiz permisiboagoa, aztoratzen dena mutila denean edo neska denean?
  - Emozioak azaltzea sustatzen da neskengan baina hori mutilei galarazten edo barregarri dela adierazten zaie?
  - Amorrua adieraztea mutilei baimendu baina neskei galarazten zaie?
- Itxaropen desberdinak eskolako emaitzen inguruan:
  - Ahalegintze eta emaitza berberak eskatzen zaizkie neskei eta mutilei?

Mutilak zerbait gaizki egin duenean, oker egin duelakoan, arreta eta sostengua ematen dio irakasleak eta berriro egitera bultzatzen du. Gaizki egin duena neska denean, neska izatearren oker egingo zuela espero zuenez, irakasleak ez du bultzatzen berriro egitera.

- Itxaropenak direla eta, hona beste hainbat aztergai:
  - Ahots tonu edo mintzamolde berbera baliatzen dugu mutilari eta neskari hitz egitean?
  - Hitz egitean, nori begiratzen diegu maizago, neskei ala mutilei?
  - Maitasuna eta ukipen fisikoa eskatzen duena mutila denean eta neska denean, berdin erreakzionatzen al dugu?
  - Mutilei lan astunagoak eta neskei lan arinagoak egin ditzaten eskatzen al diegu?
  - Nori egiten dizkiegu galdera gehiago, mutilei ala neskei?
  - Errieta berdin-berdin egiten diegu neskei eta mutilei?
  - Modu berdinean mintzatzen gara neskekin eta mutilekin?
  - Laguntza maizago eskatzen diegu neskei gauzak apaintzeko, garbitzeko, ordenatzeko...?
  - Laguntza maizago eskatzen diegu mutilei zerbait antolatzeko, ardura handiko lanak egiteko...?

Iturria: http://www.oei.es/genero/documentos/niveles/Educacion_Infantil/Coeducacion_en_EInfantil.pdf

Jarduerak betetzeko jarraibide metodologikoak

Elkarrizketei dagokienez

Proposamen honetan azpimarratu ditugu elkarrizketa, eztabaidak, iritzi trukatzeak, besteen aburuak aditu eta errespetatzea, horiek garrantzi handia daukatelako. Horretarako, eztabaida eta gogoetabide izango diren galderak ezarriko ditugu.

Oraingoan, elkarrizketa eroango duen mintzagaia urtebetetze eguna da. Aparteko egun horretan denak berezi sentitzen dira. Ikastetxe bakoitzak bertakoen urtebetetzeak ospatzeko berariazko dinamika izaten du. Abigailen istorioak lagunduko gaitu etxe bakoitzeko urtebetetzea nolakoa den ezagutzen, berezitasun kulturalak aintzat hartuta.

Ondorioei dagokienez

Jarduera eta debateetan aterako dituzuen ondorioak, inkestak, irudiak eta gainerako guztiak, kartoitxoetan biltzea proposatzen dizuegu hemendik; material horrekin horma-irudi erraldoi bat osatuko duzue, ordura arte landu dituzuen gai eta jarduerak gogoratzeko balioko dizuena.

Maitasunen botikina

Orri 3
Jarduera

Gure eta besteen emozioez jabetzeko aukera emango digu dinamika honek, modu entretenigarrian. Neska-mutilekin erabil dezakezuen errezeta emango dizuegu eta, horrekin batera, geure emozioez jabetzea bideratuko duten galderak, orientabideak eta gainontzekoen emozioak ulertzeko jarraibideak. Maitasunen botikina, proposamen honekin batera, barnean edo aparte, noiznahi baliatzeko moduko estrategia transbertsala da.

Maitasunen botikineko errezeta

Horren barruan, zoriontasuna lortzeko bost eden topatuko dituzue; bostek ere, efikazak izateko, ezinbestekoa dituzte zuen maitasun eta harreman onak, etxean eta eskolan:

- Muxu-potoa. Poto honetan, noiznahi eman ditzakezuen muxuak aurkituko dituzue; zuen senideak zenbat maite duzuen adierazteko edo beste norbaitek, adibidez, animatzeko beharrezkoak dituelako une jakin batean.
- Eskularru laztangarria. Norbait betilun ikusten baduzue, mimoeskean, jarri eskularrua eta hasi ferekatzen, laztantzen, aspertu gabe!
- Barkameneko tiritak. Inoiz norbaiti ezer gaizki egin eta hura zuzentzea nahi baduzu, itsatsi haren eskuan barkameneko tirita eta berak barkatuko zaitu, noski.

- Oihu-zorroa. Norbaitekin haserretu eta oihu egiteko edo zerbait itsusia esateko gogoa baduzu, ez jokatu horrela, geroago damutuko zara-eta. Hobe duzu hau: hartu oihu-zorroa, zabaldu eta oihukatu hor barruan nahi duzun guztia: amorrua berehala desagertuko zaizu, ikusiko.
- Maitasun-liburuxka. Liburutxo horretan maiz erabil ditzakezun mezuak dituzu, hala nola:
  - "Maite zaitut"... gogoa duzulako.
  - "Altxa burua, eutsi goiari"... zure inguruko norbait triste ikusten duzulako.
  - "Adiskidetu egingo gara?"... haserretu edo liskartu egin zaretelako.
  - "Irribarre bat"... horixe baita zure oparirik onena.

Botikina osatzeko oharra: erabili egiazko materialak, hala nola xarabe-potoak, xiringak, kotoia, tiritak, botika-kutxak liburuxka sartzeko, litxarreriak muxu modura, etab.

Nor bere emozioez jabetzea

Gure emozioak atzemateko beharrezkoa dugu kontzientzia emozionala garatu eta galdera hauek gure buruari egitea:

- Zer sentitzen dut orain, hemen?
- Hori sentiarazten didaten barne- edo kanpo-kausak zein dira?
- Sentitzen dudanaren ondorioz, nola jokatzen dut, zer egiten dut?
- Gorputzak, bere aldetik, zer egiten du, zer helarazi nahi dit?

Era berean, hausnarketa egin beharko da norberak bizi izandako egokiera emozionalez, emozioak atzematen ahalegintzea eta besteei guregan ikusten dituzten emozioez galde egitea. Ahal dela, ez ditugu erruduntzat hartuko besteak edo gorabeherak; alderantziz, geure emozioen ardura geuk hartzen hasi beharko dugu.

Besteen emozioak ulertzea

Besteen emozioak eta itxaropenak zehaztasunez atzemateko eta haien bizipen emozionaletan enpatiaz inplikatzeko gaitasuna.

Besteen emozioak ulertu ahal izateko beharrezkoa da:

- Besteek nik bezainbesteko eskubidea dutela, emozioak sentitzeko.
- Egokitzat hartzen bada, emozionalki gertatzen ari zaienaz atzematen dena adieraztea.
- Bestearekin bere emozioa partekatzea eta ulerberatasun, sostengu eta laguntza eskaintzea.
- Atzemaniko emozioa kontrakoa edo bortitza denean, zaindu harremana: ez sustatu gehiago.
- Komunikazio asertiboa bideratzea, erraztea.

Nork zer egiten du zuen urtebetetze-ospakizunean?

Etxeko lanei dagokien fitxan aurretiaz beste hainbat item ezar daitezke, ikaslea bizi den eskualde edo errealitate kulturalarekin lotuagoak badira. Senitarteen laguntzarekin egitea komeni da jarduera hau.

Amaitutakoan, ikasgelan aipatuko dira emakumeek (baita amonek ere) egiten dituzten lanak, gizonezkoek (aitonek barne) egiten dituztenak, neskatoek egiten dituztenak eta mutikoek egiten dituztenak. Garrantzi handikoa da neska-mutikoek eta horien neba-arrebek etxean nolako lanak egiten dituzten aztertzea eta, azkenean, etxeko lanetan senitarteko denok jardun behar dugula ondorioztatzea.

Produkzio- eta ugaltze-lan kontzeptuen inguruko informazioa emango dugu. Era berean, sexutzat eta generotzat zer ulertzen dugun argituko dugu, sarrera modura edo eztabaidarako laguntza gisa.

Analisia gidatzeko galderak

Alderatu zeuen inkestak elkarrekin. Zertan dira berdintsuak? Ba al dago bata eta bestearen arteko alderik? Nor da gauza gehien egiten dituena? Zergatik? Etxeko lanen arduraduna ama al da? Kontuan har ezazue nesken eta mutikoen famili errealitate desberdinak (inkesta, bizi dituzuen testuinguruei egokitu beharko litzaieke), baina ahalegin zaitezke etxeko lanen banaketan dauden desberdintasunak nabarmentzen.

Emakumeak trebeagoak dira sukaldeko eta garbitze lanetan, beraiei egokitzen zaielako lan horiek banaketan? Gizonezkoak ez al daki garbigailua jartzen? Zergatik? Emakumeak eta gizonezkoak desberdinak izatearren, lan desberdinak egin behar dituzte? Umeak zaintzea emakumeen lana da? Neskatoek ohea egiten dute baina mutikoek ez? Egoera hori zuzena al da? Zer egin dezakegu hori aldatzeko?

Nola ulertzen dugun produkzio-lana eta ugaltze-lana

Emakumeak produkzio-egituretan hainbat modutan hartzen du esku, orokorki: merkatuarentzako ondasun- eta zerbitzu-ekoizleak dira, bai ekonomia formalean, baita informal edo ezkutukoan ere. Horiez gainera, merkataritzaz bestelako ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzte, etxeko ekoizpenean, biziraupeneko produkzioan.

Ugaltze-lanak edo etxeko lana ezinbesteko erreferentetzat jo behar da produkzio-prozesuaren osotasunean jarduera ekonomikoa ulertzeko. Ugaltze-lan edo etxeko lanak dira, besteak beste:

- Etxea eta etxekoak zaindu eta horiez arduratzea (etxeko lanak, pertsonen zaintza, etab.)
- Herritarrari erakunde publikoek eskaintzen dizkioten zerbitzuen eta senitartekoen arteko bitartekari gisa egiten diren zereginak: hezkuntza-zerbitzuak, osasungintzakoak, aisialdikoak etab. kudeatzea.

- Etxekoa kudeatzearen, betekizun burokratikoen, administrazioaren eta antzekoen ondoriozko lanak. Ugaltze-lana ez da etxe zulora mugatzen, garapenaren erdigunea hori badu ere: gogoan har dezagun lan horietako asko etxe barnean eta etxetik kanpoan ere egiten direla.

Produkzio-lana, merkaturatzeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari dagokio eta, orokorki, lan horiek dirutan ordaintzen direlarik, Barne Produktu Gordinean (BPG) kontabilizatzen da munta hori; baina horretan ez dira agertzen ezkutuko lana, ezta ugaltze-lana ere, eta bai bata, bai bestea, emakumeek egiten dituzte, gehienbat.

Sexuaren eta generoaren arteko aldea

Sexu hitza erabiltzen da emakumearen eta gizonezkoaren ezaugarri anatomiko-fisiologikoez aritzeko. **Generoa,** berriz, sexu bakoitzari egozten zaizkion jarrera eta gaitasunak adierazteko; hauek, gizarteak gizonezkoari eta emakumeari egotzi dien rolaren ondorio direnez, batzuen eta besteengandik gizarteak espero duenaren estereotipo kulturalak izateraino bilakatu dira.

Jarrera edota jokaera horiek herentziak edo biologiak baldintzatuak eskolari (bere gizartearen kultura transmititzearen edo aldatzearen eragile den heinean) aukera ematen dio ikasleek sexuen araberako rolak hartzean sekulako eragina izateko.

Amona Manolik trengidaria izan nahi zuen

Orri 9
Jarduera

Eztabaida: koloreak eta jostailuak

Puri-purian dago oraindik arrosa eta urdin koloreen eta jostailuen inguruko eztabaida. Debatea sustatzeko asmoz, galdera hauek egingo dizkizuegu: Arrosa kolorea neska guztiei gustatzen zaie? Zergatik? Urdina mutil denei gustatzen zaie? Mutiko batek arrosa kolorea atsegin badu, zer gertatzen da? Zergatik? Ba ote dago neskatoentzako jostailurik eta mutikoentzako jostailurik? Zergatik? Zergatik gertatzen da hori dena, zuen iritziz?

Beren gelen marrazkiak aztertzeko

Ikasleen gelak —norenak diren aipatu gabe— agertzean, galderek marrazkia nabarmentzeko balio behar izan dute: Gela honetatik zer gustatzen zaizue gehien? Zuenean, honetako gauza berdinik ba al duzue? Gela hau mutil batena da ala neska batena? Zergatik?

Adin hauetako gaztetxoen gelan ikus genitzakeen gauzen zerrenda bat ipini dugu; hori, estereotipoak atzeman eta gogoeta egiteko egokia izan daiteke.

- Izara edo maindire marrazkidunak: futbolistak, printze-printzesak, superheroiak...
- Marrubi-usaindun kolonia
- Animalien liburuak
- Futbolista baten horma-irudia
- Egurrezko sehaska txikia
- Auto telegidatua
- Arbela
- Itsasontzia, automobila...
- Ordenagailua
- Animalia, garraio-ontzi eta antzekoez apainduriko lanpara
- Lurbira-globoa
- Margotzeko koadernoa
- Ispilua
- Panpina
- Musika-tresna
- Balleteko zapatilak
- Paperezko muki-oihaltxoak
- Mekanoa, eraikuntza-jokoa
- Marrazkiz edo formaz apainduriko motxila
- Futboleko botak

Jolasa eta genero-estereotipoak

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen: haurren ikaskuntza abiarazteko lanabes edo biderik egokiena jarduera da, **jolasa.**

Jolasaren bitartez, pixkanaka, haurrak inguruko jarraibide sozio-kulturalak barneratzen dituzte, beren kulturak menderik mende pilatu duen jakinduriaz eta garatu dituen balioez jabetzen dira, gizarte-kide bakoitzari agintzen zaizkion eginkizunak ezagutzen ditu.

Hiru eta zazpi urte arteko haurretan ohikoa den jolas edo joko sinbolikoak, ereduak imitatzeko eginkizuna ederki betetzen du. Neskato-mutikoek egunero gertatzen diren komunikazio eta harremanezko eszenak errepikatzen dituzte, bizitza “benetakoan” helduek bizitzen dituzten rol sozialak imitatuz: horrela garatzen da sexu bakoitzari agindutako rolen ikaskuntza naturala, berezkoa. Neskato-mutikoen jolas naturaletan ikusten dugu edukiak desberdinak direla, nor zein sexutakoa den. Neskak jolas eta joko lasaiagoak ditu, eta jostailu-aukera (panpinak, etxeko tresnak...) urria. Mutikoaren joko eta jolasak bortitz eta fisikoagoak dira, eta jostailuen zerrenda luzeagoa da. Mutikoak nahiago ditu gerra-jolasak: lapurretan egin, espaziontzia pilotatu, etc.., jolaskideak bere sexukoak dira eta, neskaren bati parte hartzeko aukera ematen badiete, mutiko ausartek salbatuko duten bahiketaren biktima edo antzeko zerbait izango da.

Neskatoen jolas eta jokoak

- Joko sinbolikoa: emakumearekin eta ugaltze-ereduarekin loturiko egintza eta zereginak imitatzen dituzte.
- Joko erritmikoak: biribila.
- Errepikatze-jokoak: soka-saltoa, pilota pasatzea, goma elastikoa...
- Jarduera logikoko jokoak: puzzleak, marrazteko eta margotzeko lanak.
- Mugikortasun apurreko jolasak dira, oro har, pasiboak, espazio txikietan egiteko modukoak.

Nolako jarrera-jokaerak garatzen dituzten

- Otzantasuna, lotsa, lehiakortasunik eza, mendekotasuna, konformismoa, lasaitasuna, zerbitzua, eskuzabaltasuna.
- Elkarlana, inhibizioa, kontzentrazioa, garapen intelektuala.
- Rol tradizionalen imitazioa, erritmoa, mugimenduen koordinazioa.

Nolako eragina duten genero-rol sozialen ikaskuntzan

- Amatasuna eta etxeko lana onartzea.
- Lanbide estereotipatuekin identifikatzea: erizaina, sekretaria, andereño, garbitzailea.
- Neskek lanbide femeninoak aukeratuko dituzte.

Jolas horietan aritzeko mutikoei baimenik ez emateak, ikaskuntza-prozesua den aldetik, eragin hauek ditu: gurasoen eginkizun edo zereginak arbuiatzea, etxeko lana gutxiestea, jolas horiek garatzen edo bideratzen dituzten jarrera eta jokaerek aurrera egitea galarazten dute eta, azkenik, erizain, idazkari, maisu eta antzeko lanbideak ospe gutxikotzat jotzera eramaten du ikaslea, emakumearen ogibidetzat hartzen dituelako.

Mutikoen jolas eta jokoak

- Mugikortasun-, jazarpen-, borroka- eta indar-jokoak.
- Eraikuntza-jokoak: automobilak, mekanoak.

Nolako jarrera-jokaerak garatzen dituzten

- Lehiakortasuna, agresibitatea, ikerkuntza, trebezia fisikoa, arriskua, maneiatzea, protagonismoa, segurtasuna.
- Sormena, bortizkeria, espazio-denbora menderatzea.

Nolako eragina duten genero-rol sozialen ikaskuntzan

- Prestigiozko lanbideak hautatzera darama haurra: eraikuntza, teknika, ikerkuntza, mekanika etab.
- Haurrak lanbide “maskulino” peto-petoak aukeratuko ditu.

Iturria: http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/ revista/pdf/Numero_7/ZENAIDA_ALONSO_1.pdf

Gure aitona-amonen garaietan...

Orri 11
Jarduera

Lanbideez eta estereotipoez: "Emakumea zaintzaile", "gizasemea mantentzaile"

Batzuetan, lanbidea aukeratzeko unean "emakumea zaintzaile", "gizasemea mantentzaile" eta antzeko estereotipoek izaten dute eragina. Estereotipo horiek ikaslea ukitzen duten testuinguru askotatik sartzen dira: testu-liburuetako irudietatik hasita, telebistako iragarkietaraino, jostailuen publizitatean barna edo, adibidez, iruzkinen bitartez, hala nola:

Ederki, mutila, horrelako notak ateratzen badituzu, etorkizunean diru asko irabaziko duzu.

Begira, seme, ikasi egiten ez baduzu, lanera joan beharko duzu. Ez pentsa familiak beti mantenduko zaituenik.

Ez galdu denbora ohea egiten, hori amak egingo du. Zoaz oraintxe bertan ikastera, azterketa ondo prestatzeko.

Neska gaztea zarela, gela hankaz gora badaukazu, nola moldatuko zara etxe oso bat antolatzeko?.

"Emakumea zaintzaile" delako estereotipoak neskatoengan du eragina, gaztetxoak bere buruaz daukan profesional autonomoaren pertzepzioa mugatzen duelako. Estereotipo hau familia-eredu tradizionalarekin lotua dago, ama (emakumea, oro har) zaintzaile bakartzat jotzen du eta, ondorioz, bestelako familiak osatzea "galarazi" egiten du; familiarteko bat baino gehiagok etxeko lanak egin eta, aldi berean, lanbide bateko profesionalak izatea, adibidez.

"Gizaseme mantentzaile" estereotipoak, aldiz, mutikoengan du eragina: horren erruz, mutilak ez du ikusten bere burua eta besteak zaintzeko gauza, horrelako egoerak mesedegarriak izan daitezkela pentsatzerik ez dutelako. Horregatik, hain zuzen, mutilek zailtasunak dituzte pertsonez arduratu edo zaintzea funtsezkoa duten lanbideetan sartzeko, hala nola erizain, zaharren zaintzaile, haur-irakasle, etab.

Itxura fisikoa eta lanbidea

Zenbaitetan itxura fisiko jakin bat halako edo bestelako lanbidean jarduteko elementu esplizitutzat agertzen da: lan horiek egiteko (modelo, azafata, etab.), aurpegi, neurri, forma, orrazkera, janzkera eta antzekoak dituzten neskak aukeratzen dira, nahiz eta ezaugarri horiek lanean eraginkortasunez aritzeko esanguratsuak ez diren. Nolanahi ere, gizasemeei erakargarri gertatzen omen zaizkien itxura estereotipatuak izaten dira.

Era berean, mutilei ere gomit egin beharko litzaieke, gai honetaz eta, gizaseme askoren jokaera horren atzean dagoenaz gogoeta egin dezaten; izan ere, horientzat emakumeen ekarpena eredu estetiko finko baten arabera bakarrik hartzen dira aintzat eta alderdi fisiko hutsa da garrantzizkoena, egiten den lanaren eraginkortasunaren gainetik ere.

Estereotipoak gainditzeko, askatasunez jardun eta sormenari ateak zabaldu behar zaizkio. Horregatik komeni da, ikasgelatik bertatik,

- Lanbide desberdinetan emakume eta gizonezkoen agerpena sustatzea, haurtzarotik hasita batxilergora arte; era berean, agerpen horietan estereotipoak auzitan jartzen ahalegindu beharko litzateke.
- Ikasleari ematen dizkiogun edukietan emakumeen historia integratzea, ikasleak egiaztatu dezan medikuntzan, musikan, zientzian, artean... eta era guztietako lanbideetan emakumea beti izan dela partaide. Era berean, aukerak eman behar zaizkie dantzan, dekorazioan, erizaintzan eta antzekoetan noiznahi aritu direla gizasemeak.
- Lanbideak, norberaren gaitasun eta asmoekin lotzea, sexu-opzio, edertasun-prototipo eta antzekoekin loturik ager ez daitezen ahaleginduz.
- Beren buruaren eta senitartekoen zaintze-lanetan ari diren gizon eta emakumeen irudiak erakustea.
- Beren talde sozialaren ongizatearen alde lanean diharduten gizon eta emakumeen irudiak erakustea.
- Ikasgelan, neska-mutilek parte hartzen duten erantzukizunezko zereginak antolatzea, hala nola materialak jasotzea, landareak zaintzea, gela apaintzea, etab.
- Ikasgelan, neska-mutil guztiek material tekniko, artistiko, zientifiko, literario eta antzeko guztiak eskuratzeko aukera izan dezatela begiratzea eta horiek erabil ditzaten sustatzea.
- Neskei eta mutilei aditzea; beren desio eta gaitasunak araka ditzaten sustatzea, batzuk eta besteak beren baitatik mintza daitezen ahaleginduz.

Iturria: http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/112/cd/m6/los_estereotipos.html

Herri-jokoak

Orri 14
Jarduera

Pertsonen pentsamenduak sozializatze-prozesu baten bitartez baldintzatzen ditu gizarteak; prozedura horri esker, familiaren eta eskolaren bidez kultura inkontzienteki asimilatzen da. Norbaiten bereizgarriak, jokaerak, nortasuna eta, hitz batez, izateko era, ikasitakoaren osatze kultural gisa ulertzen da.

Maiz entzuten dira “mutikoak indartsu baina nobleak dira”, “neskatoak argiagoak dira baina maltzurragoak orobat” eta antzekoak. Horrelako mezuak nortasuna eraikitzeko erabiliko diren balio eta sinesmenen oinarriak dira.

Sozializatze-prozesu horrek agintzen du pertsona batzuk genero maskulinokoak izatea eta beste batzuk, femeninokoak, kultura jakin bat zabalduz. Era horretan sexu batari eta besteari dagozkien balio jakin batzuk sustatzen dira eta balio horiek determinatuko dituzte gure pentsamenduak, izateko erak, irudipenak, gogoetak... ia dena, sexuen arabera estereotipatutako rolen agerpena finkatuz.

Sexuka estereotipaturiko rolen adibide bizia herri-kantak ditugu, belaunaldiz belaunaldi herritarra konturatu gabe transmititu diren arren. Herri-kanten bitartez, estereotipo horiek neskato eta mutikoekin nabarmen uztea proposatuko dugu; ondoren, herri-kantak berrosatuko ditugu, berdintasunezko ikuspegitik.

Lana errazte aldera, bi herri-kanta aukeratzea proposatuko dizuegu: letra aztertu ondoren, beste bat asmatu beharko da, esandako bidetik. Nola dantzatu ikus dezazuen, bideo batzuk ezarriko dizkizuegu. Eskualdeko herri-kantak bilatu eta lantzera animatzen zaituztegu hemendik.

Iturria: http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/5351/b16450176.pdf.txt;jsessionid=72619FF5D5AB82DB04C624591DFE2B2B?sequence=3

Sakondu nahi izanez gero...

Genero eta berdintasun-ikuspegiarekin loturiko beste hainbat gai

Jardueretan agertzen ez badira ere, genero- eta berdintasun-ikuspegiarekin hertsiki loturik dauden beste kontu asko jorratzeko aukera emango digu Abiren kontakizun horrek.

Famili ereduak

Izebak etorri eta lehengusutxoa ekarri dute. Hau ilusioa! Zerbait berria da niretzat, ume horrek bi ama ditu-eta

Tradiziozko familia nuklearreko kide ez diren ikasleak geroz eta ugariagoak dira. Sendiaren osaketa eta funtzionamendu berri horiek azkar ari dira zabaltzen eta aldatzen. Horri esker, familia aberatsago edo oparoagoa da askotan, familia problematiko edo bazterreko bihurtu gabe. Golombok (2006) ikerlariak dioen bezala, haurraren ongizate psikologikoan eta garapenean eragin handiena duena famili bizitzaren kalitatea da, ez egitura bera.

Famili mota batean edo bestean bizitzeak eta molde desberdinetako sendiekin bizitzeak —familia, eskola eta lagun-giroetan, batik bat— norberak daukan familia kontzeptuaren osaketan eragina izango du, famili moten aniztasuna ezagutzea, onartzea eta horiekin sentsibilizatzea bideratzen duelako. Famili plegu desberdinetako kideekin bizi diren heinean, haurrak toleranteago eta haurrek daukaten familia kontzeptua zabalago bilakatuko da.

Belaunaldiarteko harremanak

Amona ikusteko irrikan nengoen, baina Guatemalan geratu zen bera.

Batetik, bizi-itxaropena luzatzeak eta jaiotze-tasak urritzeak, ilobarekiko aitonak eta amonak beteko duen rola aldatu egin du. Izan ere, oso litekeena da hiruzpalau hamarkadaz elkarrekin bizitzea, honelako harremanak lehenago baino luzeagoak, esklusiboagoak eta simetrikoak bilakatuta (Rico et al., 2000). Bestetik, emakumea etxez kanpoko lanean sartzeak, banantze eta dibortzioen kopurua ugaltzeak eta gurasoak seme-alabez arduratzera behartuko luketen zerbitzu formalak oraingoz ez izateak ondorio nabarmen bat izan dute: iloben zaintza- eta hezkuntza-lanak, maiz, aitona-amonek bereganatzea, egungo familientzat sostengu ekonomiko, psikologiko eta sozial bihurtuta (López, 2011; Megías & Ballesteros, 2011).

Aitona-amonak maitasun sutsuaren iturri dira eta, gainera, eginkizun asko eta asko betetzen dituzte ilobekin, hala nola horiek zaindu, balioak transmititu, zahartze-eredu izan, famili historia eta istorioak kontatu, jolastu, haurrak laztandu, liskarrik denean arbitro jokatu, krisietan parte hartu, etab. (Rico et al., 2001). Aitona

edo amonaren rolaren ezaugarriak ugari bezain heterogeneoak direnez, senide edadetu horiek betetzen dituzten zereginak aldatu egiten dira hainbat faktoreren arabera, hala nola adina, sexua, baten etxetik bestearenera dagoen distantzia, iloben kopurua, osasun egoera, maila soziokulturala eta beste hainbat.

Gazteak eta migrazioa

Jolas horietan aritzen ginen maiz Youssef eta biok baina, halako batean, bere gurasoek herritik alde egin behar izan zuten, lan-kontuengatik

Munduan zortzi gizakitik bat migratzailea da, hots, nazioartekoak 214 milioi inguru dira eta estatu jakin baten barnekoak, 740 milioi. Munduan, herrialde garatuetako migratzaile horien herenen adina 12 – 14 urte bitartekoa da, hau da, 18 urtez beherako milioika gaztetxok, gurasoekin edo gurasorik gabe, estatuen arteko edo estatu barneko mugak zeharkatu behar izaten dituzte

Datozen urteetarako estimazioen arabera, egundoko gazte-uholdeak segituko du horrela eta populazioen dinamika are eta gehiago aldaraziko du, faktore askok baldintzatuta: demografia, desoreka ekonomikoa, liskarrak, estatuaren porrota, natura-hondamendiak, baliabideen eskasia, ingurumen alorreko presioak (klima aldaketak, batik bat), etab.

Kulturartekotasuna

Yousseff ene urtebetetze-eguna ospatzera etortzea, oparirik onena niretzat

Europako Kontseiluari eta nazioarte mailako beste hainbat erakunderi esker, joan den mendeko zortzigarren hamarkadaz geroztik jabetu gara herritar guztiok prestatu behar dugula gizarte kulturanitzetan bizitzeko, eskola curriculumetako edukiak ikuspegi kritikoz aztertzeko eta benetako hezkuntza inklusibo, antiarrazista eta bidezkoa sustatzeko.

Diskurtso hori, nolanahi ere, immigrazio alorreko Europako praktikei dagozkie (immigrazioa aurreikusi, kontrolatu eta konpondu beharreko arazo larritzat aurkeztu da, etorkinen eskutik beti omen datozelako gizartean arazoak, liskarrak eta pitzadurak, haien esanetan), etorkinen potentzial eraldatzaile guztia deuseztatuz, linbo erretoriko moduko batean uzteko, eta Europako estatuetako kultura nazionalen bateratze berri batean loratzeko, kultura horiek baitira antzina-antzinatik esentzia homogeneoa, bateratua. Errealitateak bestela diosku, arras: estatu horien antolamendu modernoaren emaitza berriak dira (eta, estatu espainiarrean, adibidez, bere baitan bizi diren nazio-, kultura edota hizkuntza-errealitateei edo ijito etniari dagokien guztiarekin talka egiten du noiznahi), azal-azaletik beheraxego legokeen kulturartekotasun-izpirik ñimiñoena eragotziz.

Kulturarteko hezkuntza ez da etorkinentzako hezkuntza, ezta atzerritarrentzako, behartsu edota marjinatuentzako hezkuntza

ere. Ez da, era berean, hainbat alorretako eskola-edukiei beste munduetako, beste "kultura" batzuetako elementu, pertsonaia, ekoizpenen elementuak (asmo onez baina okerreko bidetik) txertatzea, "kultura" desberdinak zehaztasun osoz mugaturiko objektuak, objektugarri eta elkargarriak balira bezala, estatuen, herrien edo erlijioen komenientzien arabera. Eskola curriculumak aski zamaturik ez baleude lehenagotik...!

Horregatik diogu kulturarteko hezkuntza proiektu politiko eta soziala dela (eta halaxe da, zalantzarik gabe, zeinahi herrialdetako derrigorrezko hezkuntza oinarrizkoa, herrialde horren politika sozialen hezur-muinean finkatua baitago) eta ez dela proiektu pedagogiko hutsa, ezta axiologiko hutsa, ezta hezkuntza-sistemari gerturatzen ari zaizkion moda ugarietako bat, beste bat.

La resocialización del profesorado, Xavier Besalú
https://www.youtube.com/watch?v=c9J00xEk1MU

Kulturarteko hezkuntza, genero ikuspegitik. Luz Martínez Ten

Sarri, hezkuntza-sisteman genero-berdintasunaren inguruko eztabaidak, gai honetan adituak diren emakumeek idatziriko koedukazioari buruzko kapitulu erantsi batera edo berariazko epigrafe batera zokoratzen dira. Kulturartekotasunaz aritzean, era berean, emakumeen diskriminazioaren errealitatea desagertu egiten da diskurtsoaren ildo nagusitik; esplizitu agertzen da, ordea, gai jakin batzuk agertzen direnean bakar-bakarrik: kultura-gatazkari dagozkionak, emakumeen funtsezko eskubideen aurkako atentatua delako, edo erabat atzemangarriak diren egoeretan, hala nola neska ikasleekiko bestelako tratua denean. Beste hainbat alorretan gertatzen den bezala, hezkuntzan ere berdintasuna halakotzat aztertzen da emakumea, kolektibo den aldetik, ukitzen duten egoeretan, ez bestela. Horrela, kulturarteko hezkuntza-eredu desberdinek proposatzen duen bezala, emakume eta gizonezkoei egozten zaien rola —eta batzuen eta besteen artean sor daitekeen harremana— aztertzen duen genero-kategoria baztertzen du nabarmenki. Genero-ikuspegitik analisirik ez egiteak, testuinguru kultural desberdinetan emakumeek bizi dituzten diskriminazio-egoerak ezkutatzeaz gainera, hezkuntza berdintasunean aplikatuko duen eredua taxutzea galarazten du.

Feminismoaren eta kulturartekotasunaren arteko lotura, kulturarteko hezkuntza-eredu bat, edozein, garatzeko ezinbesteko elementuetako bat da, genero-berdintasuna funts etiko saihestezintzat jotzen badu, bai kulturartekotasunaren kontzeptuan, bai hezkuntza-praktika arautzean, analizatzean, diseinatzean, aplikatzean eta ebaluatzean ere.

Hasteko, ikuspegi feministatik birtaxutu beharra dago kulturarteko eredua; eztabaida, unibertsalismoen eta bestelakotasunen artean zentratu behar, sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzean oin hartuta. Kulturak, jarrera kritikotik halakotzat aitortzearen inguruko adostasun handia ezartzen du; horrixe helarazi behar zaio hezkuntza-eredura genero-ikuspegitik.

Curriculumean funtsezkotzat jotzen ditugun berdintasun-balioez eta ikastetxearen antolamendu eta kudeaketari dagozkion beste hainbat kontuz gogoeta egiten ez badugu, nekez garatuko ditugu estrategia jakin batzuk.

Hezkuntza-errealitatea osatzen duten aldagai denetan genero-ikuspegia sartu beharra dago: elkarbizitzaren arauetan, familiartekoen partaidetzan, hezkuntza afektibo-sexualean, ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioan, erlijioaren eta hezkuntzaren artean ezartzen den loturan eta beste askotan. Estatu espainiarra aspaldi honetan mundu zabaletik datozen gizatalde askoren helmuga bihurtu izanak kulturen elkartzez eta bereiztez beteriko munduan murgildu gaitu. Aldaketa sozial horiek bereziki nabarmenak dira erakunde jakin batean: eskolan. Eskolako geletan gertatzen dira gatazkak eta gertatzen dira adostasunak. Nolanahi ere, eskola bihur daiteke harreman sozialak errepikatzeko eszenatokia edo, bestela, horiek aldarazteko lanabes ahaltsua, desberdintasun kulturalak errepikatzeko lekua edo kulturarteko bateratzeen gunea.

Gauzak aldatzeko helburua duen kulturarteko hurreratze edo topatze horrek, historikoki emakumea diskriminatu duten balio, ohitura eta tradizioak, ikuspegi kritikotik aztertu behar ditu eta, gainera, bizitza berdintasunean partekatzen irakatsi. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean adosturik agertzen den eta Emakumeen Nazioarteko Konferentzietan (azkenekoa, Pekinen, 1995ean) luze-zabal jorratu den berdintasun horrek, mundu osoko emakumeentzat erdietsi behar diren helburuak argi eta garbi agertzen ditu Plataforma jakin batek.

Iturria: http://www.escuelasinterculturales.eu/spip.php?article148

Gure baitan dugun ahalmena. Zeliha Ünaldi

2015eko uztailaren 30ean.

Nire historia ez da kontakizun xelebrea, akaso imajinatuko zenuten bezala, kontzientzia hartze eta errealizazio pertsonaleko historia baizik. Pekinera doan trenera igo eta, 1995ean, Emakumearen Laugarren Mundu-Konferentzian, Gobernuz Kanpoko Erakundeen Foroan parte hartzeak bizitza aldatu zidan.

Zortzi egun eman nituen Varsoviatik Pekinera doan tren transiberiarrean hogeita bederatzi herrialdetako berrehun emakumeren artean. Bidaiaren iraupen luzeak ez zigun axola, gure xede bakarra mundua transformatzea baitzen.

Hogeita lau urterekin graduondoko ikaslea nintzen ni, Ekialde Ertaineko Unibertsitate Teknikoan, Turkiako Genero eta Emakumea ikaskuntza-egitarauan aurrenetako bat, alegia. Egitarau horren ordezkari Pekinen izan nendin aukeratu ninduten. Partaideei banatu zitzaizkien zorroetan, mundu zabalean biziki ezaguna den Sue Vinson feministaren esaldi pare bat inprimituta zeudela ikusi nuen: “Anitz eta bat ginen” eta “Mundua, emakumearen begietatik”.

Karpa tarteetan, mundua zuzenago egiteko konpromisoa hartua zuten emakume andana batekin elkartzen nintzen egun haiek gogoan, bi hitz datozkit burura: senidetasuna eta bakea.

Senidetasunean sinesten dut oraindik, belaunaldi berrikoei hori zaharkiturik dagoela iruditzen bazaie ere. Pekingo Egintza Plataformakoak eta handik hurrengo bost urteek ulertzen lagundu zidaten, emakumeon baitan datzan eta guk, mundu-mugimendu gisa, daukagun ahalmen hori.

1995ean estatuko legeak uztartzea zela eta, eztabaida egin genuen Emakumearen Aurkako Diskriminazio Era Guztiak Suntsitzeko Konbentzioarekin eta Pekingo Egintza Plataformarekin. Egun, berriz, lege horiek eraginkortasunez aplikatzeko eraz egiten dugu eztabaida. Bidearen luzea! Hogei urte honetan Turkian emakumeentzat gauza asko aldatu dira baina, beste aldetik, hango emakumeen bizitzan funtsezko aldaketarik ez da izan. Joan den mendearen kondarrean eta honen hastapenetan legegintzan aldaketa handiak egin ziren, genero-berdintasunera iristeko. Emakumeen mugimenduak eta erakundeek arrakastaz jardun zuten eta, horren eraginez, Kode Zibilean, Penalean eta laneko legegintzan aldaketak sartu ziren.

Turkian, alabaina, ezkondutako bost emakumetik bi etxeko indarkeriaren biktima izateko arriskuan daude. Pekingo Egintza Plataformaren aldeko gogo-berotasuna Turkian hein batean epeldu dela esango nuke nik, azken hamarkada honetan, batik bat.

Pekingo Konferentzia izan zenetik genero-alorrean jardun dut lanean, aholkulari eta aktibista modura garatuz. Azken hiru urteak Turkiako garapen txikieneko eskualdeetan eman nituen, emakumeen GKEetan. Bai nire lanean, bai nire bilakaeran, oraindik ere sentitzen dut Pekingo haizea, aurreraka bultzatzen nauena. Orain, Nazio Batuen Behin-behineko Koordinatzailearen Ankarako Bulegoan nabil lanean, genero alorreko espezialista gisara. Pekinerako trenean igo eta NKEen foroan parte hartu nuen egunetik kargu honetan aritzeko prestatu naizelakoan nago.

Pekingo izpiritua belaunaldi gazteei helarazi nahi diet; oraindik ere “anitz eta bat” gara eta, tamalez, era eta maila guztietako ahaleginen beharrean gaude, mundua gizaki guztientzat leku baketsu eta zuzena egingo badugu.

Gaian sakontzeko, beste emakume batzuen lekukotza, in: http://beijing20.unwomen.org/es/voices-and-profiles/women-of-achievement

Glosarioa

Bizimodu laborala eta pertsonala uztartzea: gizon eta emakumeek norberarentzako, familiarentzako eta lanerako denbora-tarteak harmonizatzeko praktika hauen helburua, emakumea produkzio-lanean eta gizonezkoak etxeko lan edo ugaltze-lanean sartzea da, aukeren eta eskubideen berdintasunaren mesedetan.

Emakume eta gizonezkoentzako aukera-berdintasuna: egoera horretan, gizaki guztiak, sexua gorabehera, gaitasunak eta aspirazioak garatzeko eskubide eta aukera dute, erabakiak hartuz eta maila indibidual eta sozialean bere burua garatuz, emakume eta gizonezkoek pairatzen dituzten genero-rol eta mugapenetatik kanpo.

Feminismoa: gizonezkoen eta emakumeen artean aukera eta eskubideen berdintasuna ezartzeko xedea duen korronte ideologiko, sozial, kultural, ekonomiko eta politikoa.

Generoa: haurtzaroan bertan ikasi eta sozialki eta kulturalki eraiki diren bestelakotasunak, emakumeei eta gizonezkoei sexuaren arabera egozten zaizkienak eta emakumeetan desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sortarazten dituztenak.

Genero-estereotipoak: emakumeei, batetik, eta gizonezkoei, bestetik, talde homogeneotzat hartuta, imajina mental, sexu- eta genero-bereizgarri desberdinak egozten dizkieten sinesmen eta jokabideak dira. Leku batetik bestera alde gutxi dituzte estereotipo hauek, aski homogeneoak eta bipolarrak dira: emakumeei egozten dizkieten ezaugarri edo ahuldadeak gizonezkoei ukatzen dizkiete eta alderantziz. "Humanoaren" paradigma beti da maskulinoa, ez dago erreferentzia femenino unibertsalik.

Genero-rolak: sexuaren arabera, gizonezkoei eta emakumeei egozten zaizkien itxaropen, jokabide, zeregin eta antzekoak; rol horiek determinatuko dituzte gizon eta emakumeen izaera, jokaera eta sentitzeko erak gizartean.

Genero-transbertsaltasuna: (genero-mainstreaming eta genero-ikuspegi integratuaren sinonimoa) emakume eta gizonezkoen arteko parekidetasunaren aurrerapenean botere publiko guztiek duten erantzukizuna. Herri Politiketan gizonezkoen eta emakumeen Aukera eta Tratamenduan Berdintasunaren Printzipioaren aplikazioa da; kontua da batzuei eta besteei baliabide guztietarako irispidea baldintza berdinetan bermatzea, politika publikoak egun dauden desberdintasunak aintzat harturik planifikatzea eta, egiazko berdintasunaren aurrerapenean, desberdintasun horien ondoriozko inpaktu eta emaitzak atzeman eta balioztatzea.

Koedukazioa: nahitako interbentzio-prozesu honen xedea neska eta mutil ikasleen garapena sustatzea da, sexu-desberdintasunean oin harturik, hainbat helburu lortzeko, hala nola norberaren garapen pertsonal eta afektiboa eta gizarte-eraikuntza adostu eta bateratua. Ez da nahasi behar "koedukazioa" eta "hezkuntza mistoa": ikasgela berean mutiko eta neskatoak elkartze hutsak, ezinbestekoa den arren, ez du bermatzen hezkuntza zuzenago eta berdintasun handiagokoa izango dela.

Matxismoa: gizasemeak emakumearekin dituen menderatze eta nagusikeriazko jarrera eta jokabideak, lehenek boterea egikaritzen duten ordena sozialari eusteko; sistema horretan emakumea hein batean edo bestean menderatu, diskriminatu eta zapalduta bizi da.

Mikromatxismoak: eguneroko bizitzan eta bikote-harremanetan gizasemeak emakumea menderatzeko dituen jokaera eta ohiturak, inoiz bortitzak ere.

Patriarkatua: antolamendu kultural, ekonomiko, politiko, sozial eta erlijioso honetan agintaritza, boterea, lidergoa eta, orokorki, nagusitasuna gizonezkoak egikaritzen du eta emakumea gizasemearen peko opresio-egoeran bizi da.

Sexua: jaiotzetik arra eta emea bereizten dituzten bereizgarri biologikoei dagokie.

Bibliografia

Hidalgo Márquez, Mª Belén. *Influencia de los estereotipos de género en la descripción psicológica de los personajes que aparecen en el texto de las canciones tradicionales*, en *XXI, Revista de Educación*, 12, Universidad de Huelva, Huelva, 2010, <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/5351/b16450176.pdf?sequence=2>.

Hainbat autore, elkarlanean. *Inteligencia emocional. Sensibilización y formación básica en inteligencia emocional en el ámbito familiar*, Sycom Training Systems S.L., Bilbao, 2012, <http://axular.net/download/files/orientacion/escuela_padres/68_La_inteligencia_emocional_en_la_familia(I).pdf>.

Hainbat autore, elkarlanean. *Coeducación: dos sexos en un solo mundo*, Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado (INTEF). Módulo 6 – Proyectos de vida, Madrid, 2012, <http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/112/cd/m6/los_estereotipos.html>.

Hainbat autore, elkarlanean. *Por preguntar que no quede. Nosotras creamos mundo*, en *Cuadernos de educación en valores* n.º2, Instituto de la Mujer / CIDE, Madrid, 2006, > <http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/112/cd/pdfs/modulo_6.pdf>.

Vázquez Verdera, V., J. Escámez Sánchez, eta R. García López. *Educación para el cuidado. Hacia una nueva pedagogía*, Brief, 2012, <http://revistas.ucm.es/index.php/RCED/article/viewFile/47172/44235>.

Hainbat autore, elkarlanean. *Cómo ser un cole de cuidado. Propuestas para tu centro educativo*, INTERED, 2014, <http://redciudadaniaglobal.org/noticias/como-ser-un-centro-de-cuidado-propuestas-para-tu-centro-educativo/#.VcnOw3HtlBc>.

Calero Fernández, Mª Ángeles (coord.). *Contra el currículum ocult. Materials per a la coeducació*, Seminari Interdisciplinar d'Estudis de la Dona, 2009, <http://www.cdp.udl.cat/home/images/pdfs/curriculumocult_web.pdf>.

Martínez Ten, Luz eta Rosa Escapa Garrachón. *Cómo compartir la vida en igualdad. Guía práctica para chicas y chicos*, <http://www.mujeresenred.net/IMG/pdf/guiacompartir.pdf>.

Herritargo globalerako hezkuntza. Baliabideak

Kaidara
www.kaidara.org

Oxfam Intermón-ek eta Herritargo Globalerako Hezitzaileen Sareko kideek bildu eta idatzitako hezkuntza alorreko eskarmentu eta baliabideak. Hauek erabat libreki deskarga daitezke eta, bai web orria, bai material gehientsuenak eskuragarri daude euskaraz, katalanez, galizieraz eta espainieraz.

Eskola aldatzeko pistak
OXFAM-INTERMÓN (2009). Barcelona

Gizakiarekin eta planetarekin arduratsu izango den herritargo globaleko korronte bat osatu ahal izateko, funtsak eskolatik hasita finkatzea behar-beharrezkoa da. Baina, ikasgelako jardueran, sinesmen horretan tinko gabiltzanok ederki dakigu hori ez dela batere erraza izango. Egungo hezkuntza sistemak erantzun urri ematen ditu. Bestelako eredu bat sortu behar dugu, humanista, elkarrizketan eta elkarbizitzan oinarritua, komunitate-eskola eraikiko duena, justiziaz arduratuko dena, ingurunera eta mundu zabalera irekia. Aurrean dugun erronka behinena bestelako hezkuntza egitea da, bai "izateko", baita transformatzeko ere.

www.kaidara.org/ek/recurso/Pistas-para-cambiar-la-_escuela

Hezkuntza-zentro eraldatzaileak: herritargo globala eta gizarte-eraldaketa
OXFAM-INTERMÓN (2012). Bartzelona

Agerkari honetan, proposatzen dugun eredu eraldatzaile honekin osorik edo partzialki bat datozen bestelako hezkuntza-ereduak bildu eta erkatzen ditu eta, era berean, gauzatzeko moduko hezkuntza-ibilbideak zehazten ditu hiru mailatako praktiken eskutik: irakaskuntzakoak (ikaskuntza-irakaskuntza alorrean), antolakuntzazkoak (antolakuntza eta harreman alorrean) eta politikazkoak (ingurunea eta gizarte-eraldaketa alorrean).

www.kaidara.org/ek/recurso/centros-educativos-transformadores

kaleidoskópio

Autorea:
Barabara Educació SCCL.

Koordinazioa:
Begoña Carmona

Herritargo Globalerako Hezitzaileen Sarea:
Hezkuntza-proposamen honetako edukiez aholkularitza eman eta jarraipena egiten du interneten diharduen Munduak Elkarlotuz-eko batzordeak, kide hauek osaturik: Pablo Cuenca, Santiago García, Esther Gutiérrez, Teresa Hernández, Flor López, Jordi Riera eta Arantza Zubizarreta.

Diseinua eta maketazioa:
Estudi Lluís Torres

Hizkuntz zuzenketa:
Albert Nolla

Ilustrazioa:
Espais Telemàtics

Itzulpena:
Karmele Hevia

Oxfam Intermón-en hezkuntza-proposamenari buruzko informazioa zabaltzeko

- Web: http://www.oxfamintermon.org/es/que-hacemos/campanas-educacion/educacion/propuestas-educativas
- Zatoz gurekin facebooken: "Herritargo globalera begirako hezkuntza" https://www.facebook.com/Educar-para-una-ciudadan%C3%ADa-global-765403543496049/
- Correo: educacion@oxfamintermon.org

Agerkari hau Creative Commons lizentziarekin gauzatu da

Cooperación Española

MOVIMIENTO POR LA EDUCACIÓN TRANSFORMADORA Y LA CIUDADANÍA GLOBAL

Agerkari hau gauzatu ahal izan da Garapenerako Nazioarteko Kooperazioaren Agentzia Espainiarraren (AECID), finantza-laguntzari esker, hurrengo itunaren kontura: **"Movimiento por la educación transformadora y la ciudadanía global en el ámbito de la educación formal (14-CO1-642 kodea)".** Agerkari horen edukiaren erantzukizuna Oxfam Intermón-ena baizik ez da eta ez du AECID-en iritzia nahitaez adierazten.

Eusko Jaurlaritzaren kolaborazioarekin

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OXFAM Intermón